

Mundura ireki



**ANE LABAKA
MAYOZ**
BERTSOLARIA

Mexikon gertatu zitzaigun duela urte dezente. Latinoamerikako inprobisatzaileen topaketa batzuetarako gonbidapena luzatu ziguten, eta hiru neska gazte joan ginen hango *maestro* artera. Ia hilabete iraun zuen bidaiak izugarri mugitu gintuen; zentzu askotan. Herriz herri ibili ginen. Bik bertsotan egin genuen eta hirugarrenak, koaderno txiki bat aldiro soinean zera-manak, guk kantatutakoak itzuli zituen jendaurrean. Topaketen amaiera aldera, tristatu egin ginen parte-hartzaitetako batek galdera hura tirokatu zigunean: gaztelera hain ondo menderatzen baduzue, zergatik ez duzue zuzenean hizkuntza horretan inprobisatzen? Tristatu egin ginen, hilabete osoan oholtzan nahiz oholtzapean azaldu nahi izan genuena nahi bezain argi azaltzen asmatu ez genuelako. Ez dut gogoan une hartan zer erantzun genion. Sentitzen genuena adierazteko zein hitz erabili ote genituen. Baina galderak itzulerako bidaiarako zer pentsatua eman zigun.

Urte batzuk geroago, eta geografiko-ki ere gertuagora etorrira, Leioako Arte Ederretako fakultatea bisitatu genuen hizlari gisa. Lau emakumezko osatzen dugun sormen kolektiboari buruz hitz egiteko deitu ziguten. Hara iristean jakinarazi ziguten hitzaldia gaztelera izan-

go zela, gaztelera izan ere entzuten egongo zirelako. Hala nola itzuli genuen aurrez prestatuta geneakarra, ez izerdirik isuri gabe, eta, gure proiektu batzuk azaldu ondoren galderen tartea ireki zenean, noizbait entzundako galdera baten oihartzuna belarriratu zitzaigun. Egiten genuena ondo zegoela esan zigun mutil hark, oso interesgarria zela baina... Zergatik ez genuen beste hizkuntzaren batean sortzea probatzen. Mundura irekitzeko, badakizue.

Eta bai, kutsu panfletariodun zutabe honetatik haratago, guztiz zilegi izan daiteke sortzaile bakoitzak hizkuntza bat edo beste bat hautatzea. Zilegi iruditzen ez zaidana zera da: diglosiak alde-rik alde zeharkatzen gaituen bitartean hizkuntza bat edo bestea ausaz aukeratu izana defendatzen saiatzea. Orain eta hemen, hautu politikoa da euskaraz sortzea. Eta ez naiz bukaerako emaitzez bakarrik ari, ezpada sormen prozesu osoak ere euskaraz eta euskaratik garatzeaz.

Eta ez, nik ez dut hautu honen alde egiten euskara txikia, ederra, Europako hizkuntzarik zaharrena, Aitorren hizkuntza zaharra, gure arbasoena, txan-txangorriak zaintzen duena... delako. Funtzionala delako baizik. Noranahikoa. Mundura eta munduak irekitzeko balio didana. ●

Surflari abil-dorpeak



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA
IDAZLEA

Han eta hemen agertu dira kasuak. Parte txarreko birusa bezalatsu hedatu dira antzeko albisteak. Lotsaren eta eskandaluaren oihartzunak errepikatu dira. Berriz ere. Kargugabe-tzeak, dimisioak, alegatuak nahiz barkamenak hainbat hizkuntzatan entzun dira. Halako batzuk, ongi dakigunez, hurbil-hurbilean ere gertatu dira, euskara gutxi aditu arren.

Barka biezat maite dudana Antropologia Kulturalaren diziplinak: txertoek eragindako olatuak nazioarteko bazter frankotan ikusi izan dira azkenaldian; ezin, beraz, eremu soziokultural jakin bati atxiki fenomeno miserablea. Ari

gara, betiere, txertoak erosteko aukera izan duten geure herrialde aitzinatuez. Ari gara, arestiko olatuak gogoan, surflari abil-dorpeez: lehenasun publikoei muzin eginda, gordeka txertoaren ziztada gozoa hartu duten kargudunez, ahai-deez, lagunez eta abarrez. Kolektiboaren kontra erabilitako xiringez.

“Beste mami bat ere baduk hor”, zirikatu nau aspaldi ikusi gabeko izeba batek. Gertakarien argitan oraindik ikusi ez dugun estrategia batez ari omen zen: eskandalo lotsagarriak direla medio, mundu guztiak txertoa jartzea modu eraginkor batean sustatu nahi duena. ●